

# BERRIGARA

1997. zenbakia JARDUN Elkartea, Bergara 1997, urriak 31



**Mahaingurua**

**Gizartean presente  
daude jubilatuenak?**

**MARKIEGI**  
**autoak**

Leizeaga, 1 (San Lorentzo Industri Poligonoa)  
20570 BERGARA (Gipuzkoa) Telefonoa: 76 35 09


**BIGARREN ESKUKO**  
**AUTOAK**



# VENTANAS SAN MIGUEL

Ibargarai, 4 Tl. 76 12 21 Bergara  
Iturrioz, 24 Tl. 79 78 10 Arrasate

*Zure ongizatea  
baberstea gaudela*



**VENTANAS  
SAN MIGUEL**

**SALDUOSTEKO ZERBITZUA (URTEBETE DOAN).**

**NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK.**

**EREDU ETA MOTA GUZTIETAKOAK.**

**AHOLKULARITZA TEKNIKO ETA KONPROMEZURIK GABEKO AURREKONTUA.**

**30 URTEKO ESPERIENTZIA ETA 100.000 BEZEROTIK GORA IZATEA DIRA GURE BERMEA**

## Sexu arri

**buruzko hitzaldiak**

**AMAIA VAZQUEZekin**

**Azaroaren 6an, osteguna**

**Maitasun harremanak**

Komunikazioa, proiektuak, sexualitatea, seme-alabak,  
berezko guneak.



**Azaroaren 13an, osteguna**

**Sexualitatea, sexu harremanak**

Gozamena, desioa, irudimena, fantasiak.



**Azaroaren 20an, osteguna**

**Gure bizitza pertsonalean agertzen diren  
zenbait arazo eta krisialdi**

Menopausia, andropausia, banatzeak, heriotzak...

**Hitzaldi denak arratsaldeko 7etan izango dira Kultur etxean**

**Antolatzailea: Jardun**

**Laguntzaileak:**

Beragarko Udala eta

Gipuzkoako Foru Aldundia

## BERRIGARA

ERROTALDE JAUREGIA  
20570 Bergara  
T 76 03 97  
Faxa: 76 29 77

## Argitaratzailea:

BERGARA Elkarte

## Zuzendaria:

Eneko Azkarate

## Erredakzioa:

Eduardo Mendibil

Mikel Elkoroberezar

## Maketazioa:

Enko Iturbe

## Publizitatea:

Kristina Romero

## Harpidetzak:

Bergara Elortza

## Testuen zuzenketak:

Emiliano Plazaola

Miguel Laskurain

Max Labaien

## Erredakzio kontseilua:

Bergara Elortza

Miguel Angel Elkoroberezar

Max Labaien

## Komikiak:

Enko Rodriguez

Bergara Ortega & Jon Alvarez

Max Ugalde

Enko Azkarate

## Zanaketa:

Emiliano Plazaola

## Irada:

1900 ale.

## Eprimategia:

Enko Koop. Elk. (Zubillaga, Oñati)

## Copyright:

BERRIGARA

## Lege gordailua:

ISSN 50/91

## ISSN:

1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako irazpenen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Euzko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

## Z E B E R R I D A ?

## BEATRIZ BEISTEGI

### Bedelkarreko idazkaria

- Gabonak hurbiltzen direla eta, zerbait berezia antolatuko duzue aurten?

- Bai, aurten Bedelkarreko bezeroen artean kotxe bat zozketatzea pentsatu dugu. Datorren astetik aurrera Bedelkarreko komertzio eta zerbitzuetan erosketak egiten dituztenei Opel Corsa kotxe baten zozketarako boletoak banatuko zaizkie. Beraz, urtarrilera arte boletoak banatuko ditugu eta kotxearen zozketa urtarrilaren 5eko 'Loteria del Niño' delakoarekin egingo da. Hainbat egunetan kotxea ikusgai egongo da Plazan. Uste dugu nahiko zozketa erakargarria dela eta ea jendeak erantzuten duen... Salmentak gora? Abendua oso hilabete ona da baina



azaroa ez hainbeste.

- Eskaparate lehia-keta noiz izango da?

- Udalak antolatzen du eta aurten fetxak zerbait atzeratuko dira. Eskaparateak abenduaren 14tik aurrera izango dira ikusgai eta Udalak banatuko dituen sariez gain, Bedelkarreko bezeroek botazio baten bidez erabakitako eskaparate onenarentzat saria izango da.

**"Bedelkarreko bezeroen artean kotxe bat zozketatuko dugu Gabonetan"**

## I T U R R I O N E T I K

### Udaleko Kultur Zerbitzuak

#### Gabonetako programa ia prest dauka

Udaleko Kultur Zerbitzua ia gainean ditugun Gabonetako programa zehazten ari da. Programan ez da aldaketa gehiegirik izango aurreko urteetako programazioarekin konparatuz. Bizar-zuri abenduaren 27an helduko da Bergarara eta hurrengo egunean, hilaren 28an, Oskorri musika taldeak eta Kukubiltxok haurrei zuzendutako "Marijane kantazan" euren azken lana eskeiniko dute Frontoian. Ohizkoa denez, Errege kabalgata urtarrilaren 5ean izango da eta Gabonetako oporretan gaztetxoentzat jolasak ere antolatuko dira Kiroldegian. Gazteei zuzendutako rock jaialdia ere antolatzeko asmoa dago Jam aretoan, nahiz eta fetxa eta taldeak zehazteke egon.


E S A N  
D U T E

"UNEDeko kasuan ikaslegoaren perfila destakatuko nuke. Unibertsitate mota hau modu oso diferentean bizi da beste unibertsitateekin konparatuz. Sortzen den giroa eta ikasleen beraien jarrera oso positiboak dira, ikasleak guztiz kontzientziatuta datoz, euren denbora errentabilizatzeko asmoz. Etxean egiten ari den ikasketa osatu eta ikuspegiak argitzea interesatzen zaio eta hori igartzen da zentruaren dinamikan"

**JUAN JOSE ALVAREZ**  
UNEDeko zuzendaria  
HERRI IRRATIA

"Enpresa-gizonen ezaugarrietako bat garaiz erretiratzen jakitea izaten da eta nire kasuan behintzat familiako gazteengan eta zuzendaritza taldeko beste kideengan funtzioak delegatzen ari naiz. Euskalduna beti izango da ekintzailea eta era berean honen aurrean gizartearen errekonozimendua dago eta egongo da"

**JAVIER BERASATEGI**  
TTTko presidentea  
EL DIARIO VASCO



**PODER ABSOLUTO**

Eguakitza: 22:30.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehena: 19:30 (Ikuslearen eguna).



**HOMBRES DE NEGRO**

Domeka: 11:30.



**HAMLET**

Eguena: 20:00 (Zine-kluba).

**Zinea**

▼▼ **Clint Eastwood** aktore eta zuzendariak (*Los puentes de Madison*) berriz ere kritika eta publikoaren oniritzia jaso du bere azken filmearekin.

*Luther* (**Clint Eastwood**) bakarrik lan egitea gustoko duen lapurra dugu eta Estatu Batuetako gizon aberatsenetakoaren etxea bisitatzeko duenean hilketa baten lekuko izango dugu. Tartean Estatu Batuetako presidentea murgilduta egongo da...

▼▼ *Mr. Jones* eta *Mr. Smith* edota **Tommy Lee Jones** eta **Will Smith** ditugu beltzeko gizonak. Lurrera etorritako extralurtarrek eragindako kalteei aurre egin beharko dizkie eta horretarako benetan metodo bitxiak erabiliko dituzte. Efektu berezi aipagarriak eta, tituluen ildotik, umore beltzez eragindako filmea.

▼▼ **Kenneth Branagh** zuzendari britaniarrak **Shakespeare** idazle ospetsuaren lanenganako zaletasuna azaldu du beti (*Mucho ruido y pocas nueces* filmean adibidez). Oraingo honetan *Hamlet* ezaguna egokitu du pantailara 4 orduko filme batean (nahiz eta Bergarara bi orduko bertsio laburtua iritsi). Erreparto bikaina eta dotoretasuna nagusi.

**Deiak**

▼ **1940**an jaiotakoaren afaria azaroaren 8an Antxonin jatetxean. Izen-ematea 76 11 95 (Mari Karren) telefonoan.

▼ **1946**an jaiotakoaren afaria azaroaren 8an Tartufon. Izen-ematea 76 35 51 telefonoan azaroaren 5a baino lehen.

▼ **1972**an jaiotakoaren bazkaria hilaren 8an. Izen-ematea Infernokuan.

▼ **1951**n jaiotakoaren afaria Antxonin azaroaren 15ean. Izen-ematea bertan.

▼ **1970**an jaiotakoaren eta Aranzadi Ikastolan elkarrekin ibilitakoaren bazkaria hilaren 29an. Izen-ematea Kortazarren.

▼ **Jam. M Clan** eta *Lie me* taldeen kontzertua zapatu gauean.

**Ogia**

▼ **Domeka 2:** Ogizun.

**FARMAZIAK**

- ▼ **Eguakitza 31:** Estella.
- ▼ **Zapatua 1:** Mozos.
- ▼ **Domeka 2:** Mozos.
- ▼ **Astelehena 3:** Camacho.
- ▼ **Martitzena 4:** Puy.
- ▼ **Eguaztena 5:** Guallar.
- ▼ **Eguena 6:** Estella.

**A  
R  
R  
A  
N  
O**



**Taberna**

Kruz Gallastegi BERGARA

**Sugoi**

**ERLOJUAK, ARTIKULO  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULADORAK...**

Irizar pasealekua, 2 behea  
☎ 76 59 54 BERGARA



**DEBA  
GARAIA  
INMUEBLE ETA FINANTZA  
AGENTZIA**

Arrasate / Bergara / Elgoibar  
T. Aranzadi, 2 behea ☎ 76 21 80-76 06 07


# Naroa Enekotegi

**Mezzo-sopranoaren kontzertua gaur 20:00etan Novedadesen**

**Naroa** Enekotegi mezo-sopranoak eta Aintzane Basterretxea pianujoleak kontzertua eskeiniko dute gaur arratsaldeko 8etatik aurrera Novedades aretoan.

Naroa Enekotegi 20 urteko lekeitiarra Euskal Herriko ahotsik ezagunetakoa dugu. Txikitatik kanturako zaletasun eta koalitate bikainak azaldu zituen Naroak eta 14 urte zituela New Yorkera joan zen maisu ospetsuen laguntzaz ahotsa lantzeko asmoz.

Astean hiru egunez kantu eta pianuko ordubeteko klaseak izaten ditu eta gainontzeko egunetan Jose Ramon Arteta bere irakaslearen esanetara entsaiatzen du. Era berean, urtean bi aldiz New Yorkera joaten da munduko mezo-sopranorik onenetakoa den Marilyn Horne abeslariaren irakaslearekin ahots teknikak landu eta hobetzeko. Bere hitzetan, "operako profesionalak izateko koalitateak dituzten nabiko gazte egon arren, gutxi dira adin horretan sakrifikaizeko prest daudenak. Artetak operako kantaria izan nintekeela esan zi-



Naroa Enekotegi gazte lekeitiarrak, Aintzane Basterretxea pianujolearen laguntza izango du gaur.

*danean txantxetan ari zela pentsatu nuen. Sineztezin iruditzen zitzaidan mezo-sopranoa bihurtzea".*

Mezzo-sopranoen ezagarriei buruz zera esaten du: "sopranoak adibidez mugak ditu eta bakarrik nota altuetara iristen da. Mezzoak nota baxuak hartzen ditu baina mezo-sopranoak nota altu eta baxuen aukera handia dauka".

## Lan ezagunak

Ohizkoa denez, Naroarekin batera Aintzane Basterretxea pianujolea arituko da gaurko emanaldian. Aintzane Basterretxea mutrikuarra Donostiako goi mailako kontserbatorioan piano ikasketetan diplomaturia da eta Roberto Bravo eta Ana Jastrzebska irakasle adituen eskutik hobetze ikasketak burutu ditu. Gaurko emanaldiak bi

zati izango ditu: lehendabizikoan Giordani, Gluck, Vivaldi, Iparragirre edota Masseneten piezak interpretatuko dituzte eta bigarrenan, berriz, Rossini, Donizetti, Saint Saens, Verdi eta Bizet konpositoreen lanak entzuteko aukera izango da.

Sarrerak 500 eta 300 pezetan (langabetu txartela edota Gazte Txartela dutenentzat) salduko dira Novedadesen bertan.

## ONENA

### TINTATEGIA

Barrenkale, 29 BERGARA



Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerre. Tf. 76 71 19

## Deco-Textil

### ZANGITU

Etzerako lentzeria  
Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak  
Bisiloak, tapizak, etab.

Herri lagunak 3 eta 5 ☎ 76 08 69

## Jatetxeen gida

Aurreko astean Berrigara jaso nuen eta Jose Angel Mikeori egindako elkarrizketa zetorren. Bertan irakurri nuenez, bailarako euskara taldeek Deba Garaiko jatetxe gida kaleratu dute eta hori dela eta Jardunekoak eta euskararen aldeko lana egiten ari diren gainontzeko taldeak zoriondu nahi ditut proiektu hau aurrera ateratzeko. Kioskora ailegatzen diren egunkarietan behin eta berri irakur ditzakegu jatetxeen inguruko informazioak eta kritikak baina tamalez oso kasu gutxitan agertzen dira gure bailarako jatetxeak (gehienetan Donostia aldekoak izaten dira). Ez da izango jatetxe bikainen faltan gaudelako, askotan eskualde honenganako zenbaitzuk agertzen duten interes eskasagatik baizik. Beraz, oso ideia ona iruditu zait jatetxeen gida hau publikatzea, guztion intereserako informazioa jasotzen baita bertan. Jatetxe ezberdinak ezagutzearekin batera, Deba Garaiko txoko guztiak ezagutzeko balio izango digu gidak eta ez da eskeintza makala hori. Esan bezala, Jardunekoak zoriondu nahi ditut lerro hauen bidez eta ea hurrengo batean ere gure esku-alde honen inguruko beste lan batzuk kale-ratzen dituzten. Hurrengo batera arte agurtzen zaituztet.

I. LARRAÑAGA

## Bergarako presoak Euskal Herrira

Presoak Euskal Herriratzeko zuen sinadura eman duzuen bergarar guztioi esker eman nahi dizkizuegu ekimen horren bidez zuen elkartasuna adierazteagatik.

Ekimen hau guztiontzat garrantzitsua denez, berriz ere sinadura bilketari ekingo diogula azaldu nahi dugu, eta bide batez, oraindik zuen sinadura eman ez duzenok horretara animatzen zaituztegu.

PRESOAK EUSKAL HERRIRA EKIMENA

## Fax zenbaki berria

BERRIGARA eta JARDUNeko fax zenbakia aldatu egin dugu.

Mezu, ohar, idatzi eta abarrak faxez gurera bidali nahi izanez gero,

76 29 77

zenbakia markatu beharko duzu aurrerantzean. Barkatu eragozpenak.

## Pinuak mozten hil

Atanasio Arana 51 urteko angiozartarra mendian pinuak botatzen zebilela hil zen astelehenean Zegaman. Atanasio Arana Zegamako Koba mendian lanean zebilen pinu bat gainera jauzi zitzaionean eta bertan hilda geratu zen. Bere aldeko hileta elizkizunak martitzenean izan ziren Angiozarko San Migel elizan.

## J. Antonio Igartua apaiza eguastenean hil zen

Jose Antonio Igartua apaiza eguastenean hil zen 73 urte zituela Gasteizko Txagorritxu Ospitalean. Iragan astean ondoezik sentitu ondoren, ospitalera eraman zuten. Oñatikoa jaiotzez, txikitari etorri zen Bergarara bizitzera eta apaiz ikasketak egin zituen Saturraranean, Bergaran eta Gasteizen. Orain dela 50 urte, San Pedro egunean, apaiz ordenatu zuten eta ordutik Moredan, Bergarako Ospitalean, Elgetan eta Santa Marinaran bete zituen apaiz lanak. Azkenaldian Sierbetan, San Lorentzon eta Santa Marinaran meza ematen jardun zuen. Aurtengo ekainaren 15ean Santa Marinarako eliztarren omenaldia jaso zuen, apaiz egin zeneko urrezko eztaiak betetzean. Bere aldeko hileta elizkizunak atzo, eguena, egin ziren Santa Marina parrokan.

## Tiira biraka



## UNAI AZKARATE



**Diputatu nagusia UNEDen, ikasturte hasiera ekitaldian**

Gaur, eguakitza, 19:00etan Bergarako UNEDeko ikasturteari hasiera ofiziala emango dio Roman Sudupe diputatu nagusiak UNEDen. Ekitaldian, Juan Jose Alvarez ikastetxeko zuzendaria, Luis Mari Bandres Gizartekintzako diputatua eta UNEDeko zuzendari izandakoa, Victoriano Gallastegi alkatea eta Genaro Costas UNEDeko erretorea ere izango dira.

**Herriko artistak Udalaren Boluko lokal baten atzetik**

**Bergarako** Artisten Elkartek proiektu bat aurkeztu du Udalak Bolun duen lokala elkartearentzat izateko. Proiektua Luis Abajo Udaleko kultura arduradunari aurkeztu diote eta behar diren egoitzapen lanak egiteko 12 miloi pezeta inguruko aurrekontua aurkeztu dute. Rikardo Azkargorta BEARTEko lehendakariak adierazi digunez, *“lokalk ez dauka obrarik eginda eta proiektuan onarritako obrak egitea proposatzen dugu: elektrizitatea sartzea, komunak egitea, lurra botatzea... Proiektuak 11 miloi eta erdiko aurrekontua du eta hori eginda etorkizunean ez litzateke diru askoz gehiago behariko lokala hartzeko”*.

BEART sortu zenetik, duela lau urte, euren aktibitateak aurrera eramate-



Euren jarduerak egiteko lokal baten bila dabilta herriko artistak.

ko lokal baten beharra azaldu diote Udalari sarritan. Lokal asko ikusi ondoren, Bolukoak herriko artisten elkartek dituen asmo guztiak betetzen dituela esan digu Azkargortak. *“Lokalk 400 metro karratu inguru ditu eta oso aproposa izan daiteke*

*ikastaroak antolatu eta estudioak egiteko”*.

Egitasmoa aurkeztu dute kultura batzordean. Luis Abajo batzordeburuak esan digunez, *“kultura batzordean aztertu ondoren hirigintzara bidaliko dugu, aurrera egin edo ez erabakitzeko”*.

**HILDAKOAK**

- Dolores Telletxea Errekalde**  
Urriak 22, 67 urte.
- Maria Teresa Zabala Amutxastegi**  
Urriak 24, 73 urte.
- Benito Osoro Elkoro**  
Urriak 25, 67 urte.
- Jose Luis Urrutia Zubizarreta**  
Urriak 25, 71 urte.
- Felipe Martinez Gonzalez**  
Urriak 26, 64 urte.
- Atanasio Arana Askasibar**  
Urriak 27, 51 urte.
- Jose Antonio Igartua Arana**  
Urriak 29, 73 urte.

**JAIOTAKOAK**

- Julen Herran Ugarte**  
Urriak 20
- Idoia Aiestui Aristimuño**  
Urriak 21
- Danel Plazaola Labaka**  
Urriak 22
- Martin Martinez Pinheiro**  
Urriak 23
- Monika Alberdi Aranburu**  
Urriak 23

**Labegarrietako Industrialdeko**

urbanizazioa egiteko obrak Construcciones Amenabarri adjudikatzea erabaki zuen Udalbatzak asteleheneko Plenoan. Lanak 186 miloi pezetan adjudikatu dira. Obrak egiteko 6 hilabeteko epea izango du Construcciones Amenabarrek. Azaro bukaeran hasiko dira pabiloiak eraikitzeko lur eremua egokitzen.

Era berean, udalaren hainbat eraikuntzatan jartzeko 40 garbitasun kontenedoreren mantenimendu zerbitzua eta 50 bakterioestatiko erosteko eta mantetzeko baldintza pleguak kaleratzea onartu zuen Udalbatzak EAJ, EA eta PSE-EEren aldeko botuekin. Herri Batasunak alde egin zuen Pleno aretotik Mahai Nazionalaren epaiketagatik.



**LASAGABASTER**

**ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.**

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE TI. 79 27 27 / 79 13 55

**HBko Mahai Nazionalaren epaiketaren kontrako manifestazioa**

Jose Luis Elkorori eta HBko Mahai Nazionalari elkartasuna adierazteko eta epaiketaren kontra protestatzeko manifestazio jendetsua izan zen eguastenean herriko kaleetan.

**Kilometroetako ibilaldia**

Azken urteetako ohiturari eutsiz, Kilometroetako itzulia egingo dute zapatuan Pertxa elkartekoek. Ibilaldiaren ondoren, 14:30etan, bazkaria izango dute Pertxan.

**Odol ateraldia**

Eguastenean odol ateraldia egingo da Seminarioko lokalean 18:30etatik aurrera.

**Gimnasia erritmiko taldearen zozketa**

Ariznoa gimnasia erritmiko taldeak antolatutako zozketan 025 zenbakia izan da saritua. Avenida kafetegiko Maite eta Marijori tokatu zaie saria.

**Eskulan ikastaroak Gartzela Zaharrean**

Jardunek eskulan ikastaroa antolatuko du azaroaren 10etik maiatzaren 28ra bitartean. Astelehen eta eguastenean emango da 15:30etatik 17:00etara Gartzela Zaharrean. Prezioa: 7.000 PTA Jarduneko bazkide ez direnentzat eta 6.500 PTA bazkideentzat. Izen-ematea Jardun elkartearen edo 76 08 19 eta 76 36 61 telefonoetan, azaroaren 7a baino lehen. Bestalde, gazteentzako eskulan ikastaroak zapatuan hasi eta abenduaren 20ra bitartean iraungo du. Ikastaroa zapaturo 16:00etatik 18:00etara emango da.



Txapa Irratikoez ilusio handiz ekin diote denboraldi berriari.

**Txapa Irratiak domekan ekingo dio irratsaio berriak emititzeari**

*Eguen, eguakitz eta domeketan emitituko dute astero*

Uda aurretik emititzeari laga ondoren, Txapa irratiak domekan ekingo dio aurtengo programazio berriari. Hainbat bilera egin ondoren, domeka, eguen eta eguakitzetan emititzea erabaki dute. Domekan iluntzeko 20:00etatik 21:00etara "Eskizofrenia Rock" programa izango da. Eguenetan, berriz, 21:00etatik 23:00etara hainbat saio eskainiko dira eta baita eguakitzetan ere, 20:00etatik 23:00etara. Guztira 10 programa entzun ahal izango dira FMko 97.25 dialean.

Programazioa eratzeko bi bilera egin dituzte Txapakoez. Roberto Merino irrati kideak adierazi digunez, "bileretara ez da jende berririk etorri eta betikoak jarraitzen dugu. Kolektiboa 17 urtetik 25 urtera bitarteko gazteek osatzen du-

gu eta helburua irratsaio bat egiteaz gain, Bergarako herri-dinamikan sartzea da. Horretarako, Txapan kolaboratu nahi dugun guztiok eguastenean 19:00etan BOTAko lokalean biltzen gara. Kolaboratzeko interesa duen edozein bertaratu daiteke".

Irratsaioen edukiarri dagokionez euskal literatura, musika eta aktualitateko gaiak dira nagusi Txapan. Material berria erosi dute emisioaren kalitatea hobetzeko; baina, hala eta guztiz, Udalarri lokal bat eskatzen diote Txapakoez: "12 urte diramagu lokal berdinean eta oso egoera txarrean dago. Joan zen urtean ia astero bildu ginen Udalerriko kulturakoekin eta oraindik ez dugu ezer lortu" esan digu Merinok.

**DENA 100etik**  
**ZURE OPARIENTZAKO**  
 Simon Arrieta, 3

**ANTIA**  
**HARATEGIA URDAITEGIA**  
*Txahal, idi, txerri, bildots, unxi eta baserriko oilaskoak.*  
 Matxiategi ☎ 76 15 09

**EGUREN**  
**GESTORIA**  
 Maria Pilar Eguren Díez  
 Kolegiatutako administrazio gestorea  
**Simon Arrieta Plaza, 3 behe**  
 ☎ 76 21 65 / 76 24 45



## Vaillant enpresako buruei harrera egin zitzairen Udaletxean

San Juango Geysler Gastech enpresak ateak zabaldu zituen joan zen zapatuan 100.000 berogailua egin dutela eta hiru hilabete barru plantila osoa lanean hasiko dela ospatzeko. Ekitaldian Javier Retegi Industria sailburua (argazkian, Vaillanteko buruetako batekin) eta Victoriano Gallastegi alkatea izan ziren. Era berean, langile eta senitartekoek ere lantegia barrutik ezagutzeko aukera izan zuten. Geysler

Gastecheko arduradunek emandako datuen arabera, Vaillantek Europako merkatuko berogailuen %19a kontrolatzen du eta Fagorrek, berriz, %16a. Urtarriletik aurrera San Juango lantegian 400 langile ibiliko dira lanean eta datorren urteko urrirako Vaillantek, berogailu etxearen gama guztia Bergaran egitea aurreikusten dute. Bestalde, eguakitzean, alkateak Vaillant enpresako buruak hartu zituen Udaletxean.



## Fernando Sasiain aske laga zuten eguakitzean kargurik gabe

Fernando Sasiain joan zen astean Ertzantzak atxilotutako gazte bergararra kargurik gabe aske utzi zuten eguakitzean Madrileko Audiencia Nazionaletik pasatu ondoren. Sasiaini lege antiterrorista aplikatu zioten eta hiru egun edukitu zuten atxiloturik, ETAko komando bateko kide izatea leporatu baitzioten. Eguakitzean bertan omenaldia jaso zuen San Martin plazan bere bi anairekin batera; Ertzantza, Antxon laugarren anaia-zen atzetik dabil.

Atxilotetak salatzeo Herri Batasunak mozio bat aurkeztu zuen

Udalean. Idatzian "Ertzantzak burututako muntai poliziala" eta komunikabideek izandako jarrera salatzea eskatzeaz gain, atxilotuaren familiari elkartasuna adieraztea eta atxilotetak izan dituen gastuak Udalak bere gain hartzea eskatu zuen HBk atzo, eguena, eguerdian izandako plenoan. EAJ, EA eta PSE-EEK aurkako botoa eman zuten eta mozioa ez zen onartu.

Horrez gain, HBko zinegotziek Sasiainek atxilotetan tratatu txar psikologikoak jasan zituela salatu zuten.

## Elkarteen karta txapelketaren finalak

Elkarteen arteko mus eta tute txapelketaren lehenengo kanporaketak jokatu ondoren, Artatse eta Santa Ana, alde batetik, eta Hermandad Pertxa eta Goxo-pe, bestetik, sailkatu dira final erdiak jokatzeko. Hasiara batean final erdiak eta finala datorren zapatuan, hilak 8, jokatzekoak ziren, baina antolatzaileek adierazi digutenez, astebate atzeratuko dira seguruen.

## Jubilazioari buruzko jardunaldiak

Gipuzkoako Diputazioari Gizartekintzak antolatu dituen jubilazioari buruzko jardunaldiak datorren eguakitzean, hilak 3, hasiko dira eta hurrengo zapatara arte, hilak 11, iraungo dute. Jardunaldiak jubilatuta dauden edo jubilatzeotan daudenei zuzenduta daude. Hitzaldiak 17:30etatik 19:30etara izango dira Bergarako jubilatuen etxean. Informazio gehiago jasotzeko edo izena emateko 900 43 43 43 telefonora deitu behar da goizeko 09:00etatik 14:00etara.

## Harakinen zozketa

Bedelkarreko harakinek astero zozketatzen dituzten 5 kilo txuletak 6.156 zenbakiari egokitu zaizkio.

## Iturriaga eta Egaña Artatsen

Unai Iturriaga eta Andoni Egaña bertsolariekin bertso afaria egingo da datorren zapatuan, hilak 8, gaueko 21:00etan Artatse elkartean.

Berakatz-zopa, bakailaoa, gazta menbrilloarekin eta kafe konpletoa izango dira jateko. Txartelak Arranon, Pol-Polen eta Kortazarren daude salgai 2.300 pezetan.

## Zaragozara Aranzabal Lagunartearekin

Aranzabal Lagunarteak Realak Zaragozaren aurka domekan jokatu duen partidua ikustera joateko antolatu duen autobusa 09:00etan irtengo da Frontoitik. Guztira 40 lagun inguru joango dira Lagunarteko asmoa hurrengo irteera Salamancara egitea da.

# Berrigara Gida 98



Berrigara Gida 98, Bergara eta Antzuolako gida komertziala prestazen dihardugu. Aitziber Aretxaga (argazkian) ari da komertzial lanetan, dendari, ostalari, lantegi edota profesionalen telefonoak jasotzen.

Bestalde, ohiko telefonoez gain, herriko partikularren telefonoak ere jasoko ditu Gabonetan kaleratuko dugun Berrigara Gida 98 liburutxoak. Beraz, intereseko telefonoak, komertzialenak eta partikularrenak jasoko ditugu, hau da, **Bergara eta Antzuolako ia telefono guztiak.**

Iazko Gidan agertu ez bazinen eta aurten agertu nahi baduzu, edota zure telefonoa edo helbidea oker jarri bagenuen, Berrigarara deitzeko eskatuko genizuke (76 03 97).

**BERRIGARA**

# Deba Garaiko jatetxeen gida argitaratu dute bailarako euskara elkarteek

Debagunek, Deba Garaiko Euskara Elkarteek Elkargoak, Euskara Kartara kanpainaren berri eman zuen joan zen eguastenean Arrasateko Monterron jauregian egindako prentsaurrekoan.



Debaguneko ordezkariak eskerrak eman zizkieten Deba Garaiko udalei.

Jose Angel Mikeok, Debaguneko presidentek kanpainaren lehenengo pausua Deba Garaiko jatetxeen gidaren argitalpena izan dela esan zuen. Gida honetan, Deba Garaiko 100 jatetxe agertzen dira eta bertan irtetzeagatik ez dute ezer ordaindu behar izan. Ordainez gidan azaltzen diren jatetxeek euren kartak euskaraz eskaintzeko konpromezua hartu dute.

Jasone Mendizabalek, AEDko dinamizatzailerak, gidaren ezaugarriak azaldu zituen. 177 orri dituen liburuskari Deba Garaiko jatetxeei buruzko informazio zabala eta zehatza ikus daiteke irakurtzeko modu errezean. Jatetxe bakoitzak orri bat dauka eta beste gauza batzuren artean, lokalaren argazkia, kategoria, helbidea, espezialitatea eta prezioa jasotzen dira. Horrez gain, jatetxe bakoitzak etxean gertatzeko menu bat eskaintzen du. "Menuak oso praktikoa dira eta etxean egin daitezke. Bokadilo bat nola prestatu

edota plater landuagoa gertatzeko errezetak agertzen dira. Gainera, gidaren bukaeran biztegi bat jarri dugu, liburuskari agertzen diren hitz guztiekin" adierazi zuen Mendizabalek.

### Hiztegi ulergarria

Gidan agertzen den hiztegia prestatzen Estepan Plazaolak, Bergarako Udaleko euskara teknikariak, jardun du. Gidaren aurkezpenean adierazi zuenez, "biztegia osatzeko kriterio nagusi bat erabili dugu, alegia, ulergarria izatea, bai jatetxeentzat eta baita bezeroentzat ere. Bailarako lexikoa erabili dugu, honela, 'babarrun' esan be-

harrean 'baba' jarri dugu edota 'marrubi' esan beharrean 'malluki', 'untxi' erabili beharrean 'koneju' eta abar".



Prentsaurrekoan Oñatiko Zelai Zabal jatetxeko Alberto Elorzak ere parte hartu zuen. Honek euskaraz jatetxeetan duen presentziari buruz hitz egin zuen. "Bezero guztiek euskaraz ez dakitenez, kartak erdaraz jartzen genituen. Orain, ordea, euskaraz hasi gara jartzen eta zaila den

arren, gida honek gauzak asko erreztu dizkigu. Jatetxeen gidak egiteko eskeintzak izan ditugu eta kompetentzia bandia dago. Dena den, uste dut Debagunek atera duena oso ondo eginda dagoela eta informazio konpletua ematen duela" esan zuen.

### Etxez etxe salduko da

Jatetxeen gida etxez etxe, euskara elkarteetan eta Oñati eta Bergarako turismo bulegoetan salduko da 500 pezetaren truke. 5.000 ale argitaratu dira eta "Euskara Kartara!" kanpainaren lehenengo pausua da. Izan ere, kartak euskaratzen dituzten jatetxeetan "Euskara Kartara!" logotipoa jarriko dute ateetan. Lehen fase honetan bezeroen lana ezinbestekoa izango da eta gauzak euskaraz eskatzea izango litzateke kanpainaren azken helburua.

**Gidak bailarako 100 jatetxeri buruzko informazioa dakar: telefonoa, errezetak...**



Jubilatuek gaur egungo gizartean bete beharko luketen papera izan zen aztergai mahainguruan.

# Erretirotik gizartera

## Jubilatuen bizimodua aztergai

**Antzuola eta Bergarako jubilatuek antolatutako hamabostaldiaren barruan, joan zen eguenean jubilatuek gaurko gizartean bete beharko luketen paperrari buruzko mahaingurua izan zen Miguel Altuna Institutuan. Ana Bujanda ICTeko (Instituto Comunitario de la Tercera Edad) ordezkaria moderatzaile zutela, hauek izan genituen hizlariak: Victoriano Gallastegi Beragarko alkatea, Juan Carlos Larrañaga LACOREko gerentea, Jose Mari Larrañaga Miguel Altuna institutuko zuzendaria, Rafael Eizaguirre Antzuolako abadea, Luis Mari Belastegi Pertxa elkarteko ordezkaria eta Anaje Narbaiza Jarduneko kidea. Jubilatuak gizartean presente egoteko aukerak aztertu zituzten guztien artean, aretoa jendez gainezka zegoela. Han esandakoak jaso genituen.**

**ANA BUJANDA:** Hona etorri aurretik egin zaiuzuen kontsultan, guztiak bat zatozte jubilatuak, behar baino gutxiago behar bada, baina gizartean presente daudela esateko orduan, nahiz eta gizarteak jubilatuak marginatzerara jo. Zein izan beharko litzateke jubilatuek gizartean bete beharreko papera? Nola egin aurre marginazio egoera horri?

**JUAN CARLOS LARRAÑAGA:** Alde batetik

gizartearen egoera dago eta bestetik jubilatuek gizarte honi ekar diezaioketena. Nik uste jubilatuek esperientzia aportatu dezaketela, gaur egun teknologiak adin batetik aurrerakook behinik behin gainditu egiten gaitu eta. Gizartea interes batzuzengatik (ekonomikoak, politikoak eta abar) mugitzen da gaur egun eta jubilatuek interes ekonomikorik ez dutenez, beraien esperientzia

aprobetxatu daiteke enpresetan lehen ere existitzen ziren edadetuen kontseilua edo aholku kontseiluak (izena gutxienekoa da) sortzeko esate baterako.

**ANA:** Victoriano, zela ikusten duzu instituzioetan ere honelako kontseiluak sortzea?

**VICTORIANO GALLASTEGI:** Ni ez naiz aditua Ongizateko Departamentuko gaietan baina jubilatuen gaur egungo egoerak ez dauka zerikusirik lehengoarekin. Baldintzak askoz hobekak dira eta jubilatuek ez dute bizitza pasibo bat egin behar. Iharduera konkretuetan murgil daitezke. San Joxepe elkartearen sorrera oso positiboki baloratzen dut partizipazio aktibo hori gauzatu dadin. Baina, zuri erantzunez, ondo ikusten dut instituzioetan ere jubilatuen kezka eta proposamenak jasotzea.

**Esperientzia**

**ANA:** Esperientziaren transmisioa aipatzen duzue behin eta berriz. Zela konkretatu daiteke hori?

**JOSE MARI LARRAÑAGA:** Orain dela urte batzuk ere egin genuen bilerak bat enpresa mundua laga berria zuen jende batekin euren ezagutzak heziketa mundura zela transmititu aztertzeke. Ez genuen ezer berrikerik atera baina konbentzitututa nago gai honek beste erreflesio bat eskatzen duela. Taldekako lana eginez emaitzak etorriko dira, jubilatuek erakusteko gauza asko dituzte eta.

**ANA:** Anaje, Jardun elkarteak planteatutako ideietan gure kulturaren ezagutza hobea lortzeko jubilatuen ezinbesteko

kolaborazioa aipatzen da. Zela bideratu daiteke hori?

**ANAJE NARBAIZA:** Hori bideratuko litzateke gauza guztiak bideratzen diren moduan, pazientzia askorekin. Ezin dugu formula majikorik asmatu baina lan asko egin ondoren ziur topatuko genukeela bidea. Guretzuek zarete gure oraingo kulturaren zatirik inportanteena eta orain ez badugu zuek dakizuen guztia batzen, hori galdu egingo da. Orain arte ez da inolako kontakturik egon baina guztiok zuen laguntza aldarrikatzen dugu. Kolaboratzeko gertu dagoen jendea egongo balitz, bilera praktikoak egiten hasi gaitezke. Jarraitu beharreko bidea zuek eta gure artean zehaztuko genuke.

**ANA:** Rafael Eizagirrek jubilatuen autoestimaren hobekuntza aipatzen zuen bere lanean. Zela espresatu postura aktibo bat gizartearen desestimaren aurrean?

**RAFAEL EIZAGIRRE:** Galdera zaila da. Ni ez naiz soluzio konkretuak ekartzera etorri. Nahiago izan dut jubilatuen bizitza moduan zentratzea. Presaz beteriko mundu moderno honetan jubilatuek euren ekarpena egin dezakete. Badira osasun edo bakardade arazoak dituzten jubilatuek, bizi baldintza onenak ez dituztenak edota pentsio baxuak jasotzen dituztenak ere... baina autoestima lortzea ezinbestekoa da. Zer egin autoestima lortzeko? Organizatzea eta biltzea pausu bat izan daiteke eta jubilatuen beraien bizitza estiloak lagundu dezake. Gu ere zabalago egon behar gara zuen kezken aurrean,




**Rafael Eizagirre**  
Antzuolako abadea



**Anaje Narbaiza**  
JARDUNeko ordezkaria



**Jose Mari Larrañaga**  
Miguel Altunako zuzendaria



**Victoriano Gallastegi**  
Bergarako alkatea



**Juan Carlos Larrañaga**  
LACOREko gerentea



**Luis Mari Belastegi**  
Pertxa elkarteke ordezkaria

erretiro egoera horretatik gizartearen presente egotera igarotzeko. Generazioen arteko komunikazioa behar beharrezkoa da eta lan asko dago egiteko.

**ANA:** Luis Mari Belastegik jubilatuen lokalen

aldaketa proposatzen du, jubilatuek gazteagoi atea irikitzea. Zer da jubilatuen lokaletan errefusatzeko dena ba?

**LUIS MARI BELASTEGI:** Errefusatu ezer ere ez. Baina elkarte gastro-



Belaunaldi ezberdinen arteko zubiak eraikitzearen garrantzia azpimarratu zuten mahaikide guztiek.

nomikoan funtzionatzeko modu bat dago eta jubilatzeako ordua heltzen zai-gunean zaila da gure elkartetik irten eta jubilatuen lokalerako pausu hori ematea. Pertsona batek 58 edo 63 urterekin aktibo egoten jarraitzen du eta elkartean bere kuadrila duenez ez da batere erreza jubilatuen lokalerako salto hori. Giro aldetik ere alde handia dago eta bi aktibitate horiek aldi berean egiteko modua aztertu behar da, bion arteko gerturatzea falta da. Jubilatuetara sartu behar gara baina gurea albo batean lagatzeke. Jubilatutak San Joxepen barrik ez, herriko edozein elkartetan sar daitezke. Generazioen arteko zubiak eraikitzea interesgarria litzateke. Eta ez pentsa elkarte gastromikoei San Joxeperen kontra ezer dutenik. Gehiago esango nuke: gauza askotan jubilatutak imitatu behar ditugu.

**RAFAEL:** Mentalidade aldaketa eman behar da

jubilatuaren partetik. Orain gutxi batek galdetzen zidan: "Lanean jarraitu behar dugu?". Ez da erreza norbera denarekin pozik bizitzen ikastea baina aportazio oso handia izan daiteke hori. Ezer oparitzen ez duen gizarte aktibo batean bizi baldin bagara argi dago zerbait egin beharko dutela jubilatuek ere.

**ANAJE:** Zaharrek gizartearekiko defentsa egin behar dutela aipatzen ari da baina gizartetik defenditu behar baina orduan bai lortzen dela zatiketa gehiago. Postura hori beste ikuspegitik planteatuko nuke; defentsa egin baino zubiak eraiki behar dira, oraindik egiteke daude eta. Lana egin behar da eta horretarako ez zaituztet jubilatutak kontsideratzen. Ez daukazue defentsarik egin beharrik gizartean prestigio bat galdu duzuelako. Zubiak eginez ea lortzen dugun jendeak ez ikustea desprestigio horrekin.

**JOSE MARI:** Jendearekiko errespetua ere izan behar dugu. Badira jubilatuetara joan eta lagunekin partidatxoa botatzearekin pozik diren jubilatutak ere. Ez ditugu presionatu behar. Gauzak egin bai, baina jendea hestutu barik.

**Jarraipena**

**VICTORIANO:** Jubilatutak jarraipen bat izan behar du. Jubilatzen den orduan aldaketarik nagusia zera da; ez duela inolako ordutegirik eta denbora librea nahi duen bezala aprobetxatu dezakeela. Instituzioek berriantzeko ekipamenduak (lokalak, aholkularitza e.a.) martxan jarri beharko dituzte baina iniziatiba jubilatuen esku dago. Instituzioak beren eskakizunei erantzuteko prest egon behar dira eta gu zabalik gaude. Gustatuko litzaidake kontuak eskatzera eta gauzak aporteratzera etorriko litzatekeen jubilatutaldea bat sortzea.

**"Jubilatuaren esperientzia aprobetxatu daiteke enpresetan ere"**  
**JUAN CARLOS LARRAÑAGA**

**"Iharduera konkretuetan murgil daitezke jubilatutak"**  
**VICTORIANO GALLASTEGI**

**"Taldekako lana eginez emaitzak etorriko dira, erakusteko gauza asko dituzte eta"**  
**JOSE MARI LARRAÑAGA**

**"Autoestima berreskuratzeko organizatzea inportantea da"**  
**RAFAEL EIZAGIRRE**

**"Generazioen arteko zubiak eraiki behar dira"**  
**LUIS MARI BELASTEGI**

**"Orain ez badugu jubilatuek dakiten guztia batzen hori betirako galdu egingo da"**  
**ANAJE NARBAIZA**

**ANA:** Labur-labur, mesdez, zein pausu eman behar dira jubilatuek beraien bizitza protagonizatu eta agente sozial bihurtzeko?

**VICTORIANO:** Parte hartzeko interesa. Horrekin beste guztia etorriko da atzetik.

**JUAN CARLOS:** Iniziatiba zuen esku dago oso zaila delako taldeak zeuengana jotzea. Gauza asko dago egiteko; inportanteena partizipatzea da.

**JOSE MARI:** Zuek esandakoari gauza bakarra gehituko nioke: umorenez parte hartzea.

**ANAJE:** Zuengana pilota guztiak ez botatzearen guk ere egingo dugu bide horren zati bat. Bidea alde batetik eta bestetik eraikitzen hasiko da.

**LUIS MARI:** Guztioi helduko zaigu jubilatzeko ordua eta lana egin behar da. Hori bai, bakoitzaren postura defendituz. Eta egindako lan horretaz beste inork ez dezala probetxurik atera.

**RAFAEL:** Ateak irekita izan behar ditugu eta mentalidade aldaketa beharrezkoa da. Honelako debateak pizteak aurrera egiteko balio dezake. Bestalde, ez zaie inolako atetik itxi behar jubilatuei eta adibidez Internet eza-gutzeko aukera eman behar zaie, ez gaitezen pre-juiziotan erori, hori gazte-entzuen kontua dela bakarrik pentsatuz. 2000. urtea guztioi helduko zaigu eta

ondo gertatuta eta hobetzeko aukera guztiak aztertzea komeni da.

**JUAN CARLOS:** Enpresa mundutik ere jendea jubilaziorako hobeto prestatzea komeni da, argi izateko jubilatutik ondoren zelako lana egin daitekeen. Jubilaziorako formazio ikastaroak egitea interesgarria izan daiteke.

**VICTORIANO:** Etapa berri horretarako mentalizazioa eman behar da, kontutan izanik jubilatutik ondoren, eta beharrezko kolaborazio zubiak erakitzeko, gauza asko egin daitezkeela.

**ANAJE:** Aipatu dituzuen formazio kurtsu horiek sindikatu eta enpresaren artean planteatzen badira emakume kanpogan geratzen da. Orain gutxirarte (eta hemen bildutako emakume gehienek kasuan gertatzen den moduan) emakumea etxean egon da beti, ez du gizakumeak fabriketan e.a. izan duen babesa edo laguntzarik izan. Emakumea ez da jubilatzen sekula eta formazioa aipatzen duzue, orokortasunean planteatu beharko litzateke. Erreflesio modura aipatzen dut hori. Emakumea enpresarioa izan da beti, berak eraman duela etxea. Ez du jubilaziorik hartzen eta beraz, umore puntu bat jarri nahirik, esango nuke beharbada ez duela jubilazio formazio horren beharrik.



**Tomasa Zabaleta**  
San Xosepe elkarteko presidentea

## Bidea eginez

Amaitu berri den kultur hamabostaldia inguruan orokorrean oso balorazio positiboa egiten dugu. Helburu nagusia jubilatuek gaur egungo gizartean betetzen duten paperari buruzko erreflesioa plazaratzea zen eta alde horretatik

garrantzitsua izan da programako ekitaldiei batasun bat ematea. Jose Antonio Pagola bikarioa eta Maria Teresa Bazo soziologoaren hitzaldietan pista interesgarriak eman ziren jubilazio etapari zentzu pertsonal inportante bat emateko eta gaur egungo gizarteak lan munduan zein jubilazioan eskeintzen dituen aldaketak ulertzeko. Bestalde, hamabostaldiko sorpresarik nagusienetako bat jendearen harrera izan da. Hitzaldian eta mahainguruan jendeak agertutako interesa eskertzekoa da, are gehiago honelako ekitaldietan parte hartzeko dagoen ohitura falta kontutan hartzen badugu. Egueneko mahainguruarekin ezin pozago egon, esperientziaren berritasunagatik eta herriko indar biziarekin sortutako elkartruke horrek gizartean presente egoteko ekarri dizkigun ideientatik. Bestelako ekitaldietan ere erantzuna espero baino hobea izan da eta hori frogatzeko hor dago amaiera egunean antolatutako herri bazkaria. Ihardunaldi hauetako konklusioei buruz, horrelako hamabostaldi bat antolatzeak etorkizunean herriari begira lan egiteko bidea markatu dezake eta, aldi berean, gure moduko beste elkarte batzuentzat erreferentzia izan daiteke gurea. Jubilatuek konziente izan behar gara gero eta talde haundiagoa garela, hobeto prestatutakoa gainera, eta badugula gizarteaz zer aportatu. Baloratzekoa da, era berean, elkarteko bazkideek hamabostaldia antolatzeko egindako lana, antolaketa bera arrakastatsua izan baita. Hurrengo baterako ea gizonen interesa gehiago pizten dugun, antolatu diren ekitaldietan emakumeen presentzia haundiagoa izan baita. Ea datorren urtean hamabostaldiaren bigarren edizioa antolatzeko animoa hartzen dugun.

**Gallastegi**

*Jostundegia*

Mahoizko lanerako jantziak

San Pedro ☎ 76 10 85

**KONDE**



Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

P  
A  
N  
A  
D  
E  
R  
O  
K  
U  
A



## Herri barruan ibiltzeko kotxea erabiltzeko ohiturarik badaukazu?



**Claudio Tardon**

Bolutik San Lorentzora lanera joateko kotxea hartzen dut. Errekauak egiteko eta nahiago dut oinez etortzea. Bolun eskerrak garajea daukadala, bestela...



**Maria Jesus Valle**

Bai, gida-karneta atera nuenetik guztiz alpertuta nago. Kotxea hartzen dut beti. Normalean goiz ibiltzen naizenez segituan aurkitzen dut aparkelua.




**Juan Varela**

Batzutan errekauek egiteko baina herri barruan nahiago dut oinez ibiltzea. San Lorentzon bizi naiz eta han normalean ez daukagu aparkatzeko arazorik.




**Ana Serrano**

Erabiltzen dut, bai. San Juan auzoan ari naiz lanean eta kotxea hartzen dut beti. Bankura eta errekauek egitera natorrenean lerro bikoitzean aparkatzen dut askotan.



**Joseba Lamariano**

Ez, errezago da oinez ibiltzea kotxean baino. Aparkatzeko arazorik? Ez, Bolun bizi naiz eta herrira gutxitan etortzen naiz kotxean.



**Aitor Telleria**

Martokon bizi naiz eta herri barruan etortzeko kotxea hartu beharra daukat. Aparkatzeko ez dago lekurik ez hemen eta ez Martokon ere.

**Denda berria**  
irekiko dugu  
azaroaren 3an,  
astelehena,  
D. Irala kalean.

**ZEUEN  
ZERBITZURA  
GAITUZUE,  
ETORRI ETA  
IKUSI!**



**Mediku naturistaren  
kontsulta  
Pisuaren kontrola  
Masajista**

Eska ezazu eguna eta ordua  
D. Irala kalea z/g  
Telefonoa: 76 30 08





## Alkate intsumisoak

**Azken** aldian berriz ere argitara itzuli da orain urte batzuk zokoratu genuen hitz multzoa: "exceso de cupo". Egia esan, gehiegikeriak eguneroko bidaia-lagun bihurtu zaizkigu, eta edozein alorretan ditugu kupoak gainezka.

Ohorezko dugun kupo bat alkateena dugu. Ez dut uste tokatzen direnak baino gehiago izango direnik (gehiagizko "exceso de cupo" a litzateke), baina batek baino gehiagok ez dagokion lekua okupatzen duelakoan nago. Ez dut uste gehiegi esatea denik alkate baten (edo zinegotzi eta edozein udal langilerena) zeregin eta helburu nagusia herriari zerbitzatzea dela (eta ez norberaren partiduari, lagunei, eta abar). Pentsatu nahi dut guztiek, eta bakoitzak ahal duen heinean, horrela egiten dutela. Baina badira kasu batzuk zeintzuetan norberaren borondate ona ez den nahikoa aurrera jarraitzeko: intsumisioaren kasua adibidez.

Hemen guztiok gara gure buruaren jabe, eta aske gara bakoitzak norberaren iritzia izateko: batzuk soldaduzkaren aurka izango dira, beste batzuk alde... Errespetagarri guztiak. Eta soldaduzkaren aurka daudenen artean ere jarrera ezberdinak izan daitezke: intsumisoak batzuk, hainbat arrazoiengatik soldadutza egitera behartuak izango diren beste batzuk, eskakeatzeko moduren baten bila beste zenbait... Onargarriak denak. Baina egoera ezberdina da norbera alkate denean eta herriak intsumiso izan dadin eskatzen dionean: herriaren izenean legea hautsi behar ote du? Nik erantzuna argi daukat: horixe baietz.

Alkatearen helburua herriaren nahia baldi bada, honen eskariak betetzen saiatu behar du. Eta bere burua horretarako gauza ikusten ez badu edo herriaren nahia babesteko arazoak baditu, beste leku batzutan inongo lotsa eta traumarik gabe egiten dena egin dezala: dimititu eta herriaren nahiari euts diezaiokkeen beste bati lekua utzi. Ez dezagun ahaztu kargua ohorezko ez duela aulkik egiten, bertan jartzen denak baizik.

**Iñigo IÑURRATEGI**



## Lehiakortasunaren gehiagikeria

**Burtsen** azken krisi saioak urduri jarri du (ia) mundu guztia eta, besteak beste, erakutsi digu arlo honetako jakintsuak gertatutakoa aztertzen bakarrik direla jakitunak; ez, aldiz, datorrena iragartzen. Dena den, Lester Thurow-en hitzetan, merkatuen gainbeherak Kapitalismoaren izaeran daude. MITeko irakasle ospetsu honek dioenez, kontua da gaur egun lantegi gehiegi produktu gehiegi egiten ari direla hain erosle gutxirentzat. Gaitasun produktiboaren gehiegikeria.

Agian, Asiako ekonomia indartsuenek, joan zen mendeko Manchesterreko eredu kapitalista basatian oinarritu dutelako euren hazkunde. Baina ez dezagun ahaztu, Europan egin diren erreforma guztiak -langilegoaren kalterako izan direnak- onartzeko erabili den aitzakia nagusia, Asiako ekonomiaren gorakada nabarmena izan dela.

Neoliberalak ezarritako lehiakortasun bortitzak egoera paradaxiko batera eramaten gaitu: gero eta ahalmen gehiago daukagu produktzioa gehitzeko, baina, era berean, gure gaitasun ekonomikoa jeisten ari da, langabetuak adierazgarri odoltsuena direlarik. Horregatik, ulergarriagoa egiten zaigu kontsumo pribatuaren jeitsiera. Langile gutxiago eta erosle gehiago, nola konpondu kontraesana? Neoliberalak tinko darraite: jaramon gutxi egiten diote eredu ekonomikoa honen ahuleziari eta haserre bizia erakusten dute norbaitek -demagun Jospin- edozein aldaketa izukor plazaratzen baldin badu. Lanaren banaketak Ekonomiaren aurka jokatzeko duela diote. Badi-rudi bere baitan pentsatzen dutela langabetuak nagi ustelak direla.

Kontua da, ahal den heinean, langilegoaren eskubideak murriztea. Globalizazioaren ondorioek agintzen dute kapitalak askatasun osoz mugitu daitezkeela munduan zehar; ez, ordea, gizonak. Paterazaleen bizia edota langile asiatarren lan baldintza defendaezina ez omen dute astintzen ekonomi-munduaren arreta, bai, ordea Wall Street-eko operadoreen buruhausteak. Horrela jarraitzen badugu, itxaropen bakarra eredu madarikatu hau arrakastaz hiltzea izango da. Hazia gogo haundiz lantzen ari dira neoliberalak.

**Iñigo URRUTIA**

**Azaroaren 3tik aurrera, astelehena:**

**EGUNEKO MENUA + OGIA, POSTREA ETA ARDOA  
950 PTA.**

**PISZINETAKO**

**TABERNA**

BERGARA TF. 76 53 55

**AZPEITXI**

Aranerreaka, 13 behea ☎ 76 55 00

**Jatetxea**

**EDEL  
TAPIZDENDA**

*Etxerako artikuluetan aukerarik  
haundiena eskaintzen dizugu*

**Alfonbrak, kortinak,  
kortinoiak, koltzak,  
edredoiak, etab.**

*Zure bulegoetan giro atsegina behar  
baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik  
egokienaren berri eskatzea.*

**Bidekurutzeta, 14 BERGARA**



■ **Kultur**  
**Hamabostaldiari agur**

Jubilatuen kultur hamabostaldiari amaiera emateko **herri bazkaria** egin zen zapatuan Udal Biltzean.

**180 bat lagun** bildu ziren bertan eta **Mikel Larrea** eta

**Victoriano Gallastegi**, Bergara eta Antzuolako alkateak ere jubilatuekin izan ziren. Giro bikaina izan zen nagusi eta bazkalostean hainbat zozketa egin ziren bildutakoen artean. Jarraian, **Quintanilla orkestrak** alaitutako dantzaldian, jubilatuek gazteen pareko kemena erakutsi zuten. Jubilatuak oso pozik azaldu dira Kultur Hamabostaldiak izandako erantzunarekin eta zapatu eguerdian **Maria Jesus Aranburu** Diputazioko oinarritzko gizarte zerbitzuen zuzendari orokorrak ere oso balorazio positiboa egin zuen eta honelako ekimenak beste batzuen eredu izan daitezkeela adierazi zuen.

■ **Kintadak**

Badirudi kintadak egiteko sasoian gaudela, azken astetan horrelako bazkari eta afari asko izan baitira herrian. Zapatuan ere belaunaldi ezberdinetako taldeak bildu zitzaizkigun eta bi argazki hauek bidali dizkigute erredakziora. Goiko argazkian




**1962an jaiotako bergararrak** dituzue; 40 lagun bildu ziren zapatuan Antxonin bazkaltzeko eta, urteak igaro ondoren euren lehendabiziko bilera izanik, primerako eguna pasa zuten elkarrekin. Beheko argazkian, berriz, aurtan **60 urte betetzen dituztenak** azaltzen dira. Hauek ere aspaldian ez ziren biltzen eta hildakoen oroimenezko meza entzun ondoren, Azpeitxi jatetxean afaldu zuten. 35 lagun bildun ziren, tartean **Javier Retegi** Industria kontseilaria. Zorionak guztiei!!

**iletxo**  
ileapaindegi mistoa  
**BEGOÑA ARZELUS**  
Fleming Doktorea, 7 BERGARA  
☎ 76 53 15

**PANA DE ROKUA**  
**JATETXEA**  
Kontxi Idigoras  
*Asteburuetan bertako babak eta sabieskia*  
SALBADOR, 10 ELGETA Tlf. 76 82 73

**IKUSBI**  
ALKANDORAK,  
JERTSEAK, BAKEROAK  
ETA OSAGARRIAK  
Irala, 5 ☎ 76 53 09



■ **Onddo pieza ederrak**

800 eta 300 gramoko bi onddo topatu zituen **Agarre baserriko Xabier Lopezek** joan zen astean.



Ustekabe ederra hartu zuen Xabierrek, perretxikutara sarri joan ohi da baina horrelako piezarik ez du inoiz topatu. Normala denez, non aurkitu zituen ez digu

esan, hori sekretua baita. Kontuak kontu etxean dastatu ahal izan zuten familiartekoek.



■ **Miss Gipuzkoa lehiaketara**

**Yoana Nieto** bergararra azaroaren 15ean Zestoan izango den Miss Gipuzkoa lehiaketan parte = hartzeko sailkatu da. Gipuzkoako beste 25 neskarekin batera zapatuan Donostiako Londres hotelean izan ziren aukeraketa probetan parte hartu zuen Yoanak. Soineko motzarekin eta bikiniarekin desfilatu ondoren, epaimahaiak finalerako aukeratu zuen Yoana. Zestoako bainuetxean izango den finalean 15 neska izango dira. Yoanak modelo ikasketak egin ditu **First Models** ajentzian eta bertan animatu zuten

lehiaketara aurkezteko. Berak adierazi digunez, ez zuen finalera sailkatzeko itxaropenik baina bi aste barru onenen artean izango da. Zestoan bainujantziarekin, kaleko erroparekin eta gaueko soinekoarekin desfilatu beharko du. Yoanak 18 urte ditu, 1,77 m.ko altura eta begi marroi-berdeskak; bere neurriak 93-63-96 dira. Ea Gipuzkoako miss koroa herrira ekartzen duen...

**Zertan dihardute ba?**



**Asier Altuna** "Kixi"k Telmo Esnalekin batera errodatutako "Txotx" laburmetraia aurkeztekoa zen gaur Donostiako Principal antzokian, Zine Fantastikoa eta Beldurrezkoaren VIII. Jaialdian. Joan zen astean "Perdita

Durango"ren Bilboko estreinaldiaren atarian ere eskeini zuten laburmetraia. "Kixi"ren hitzetan, "barre egiteko eta piskat flipatzeko istorioa da eta jendeari gustatu zaio". Laburmetraiak 15 minutuko iraupena dauka eta sagardotegi batean girotuta dago. Aktore lanetan Mikel Laskurain, Pako Sagarzazu edota Arantxa Izeta agertzen dira.

**MAHER**

Biltegiak L.E.

Oihal etxea

Bidekurutzeta, 29

☎ 76 22 90 - 76 26 75

**ZUBIETA**

elektragarintza

MOTORREN BOBINAKETA

ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK

Kruz Gallastegi, 2 behea

☎ 76 23 48

**ARGI PLASTIC**

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...  
Leihoak, atek, manparak...

Eska ezazu aurrekontua  
konpromezu barik




Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA  
Ifnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

# Ion Larrañaga


**Biología eta optika ikasketak burutu ondoren, 36 urteko bergarar hau Larrañaga optikan ari da lanean 1990etik. Naturarekin zerikusia duten kirolak gustoko ditu eta ahal duenean bizikletan edo piraguan ibiltzea gustatzen zaio.**

- Bista onekoa zara?
- Baietz pentsatzen dut.
- **Betaurrekorik erabiltzen duzu?**
- Ez. Eguzkitakoak udan...
- **Bista zaintzeko gomendio bat?**
- A bitamina hartzea eta gertuko lanetan (ordenagailuak eta abar) neurriak hartzea.
- **Zein adinetan hasten da bista galtzen?**
- Ez dago adinik baina gertuko lana dutenek arazo gehiago dituzte.
- **Lentillak ala betaurrekoak?**
- Segun... Graduazio haundia behar denetan, lentillak. Alergiak izanez gero, betaurrekoak.
- **Betaurreko politenak, zeintzuk?**
- Italiarrak.
- **Zein kolorekoak dira zure begiak?**
- Marroiak.
- **Beste kolore bateko lentillak jantziko zenituzke?**



*“Bista zaintzeko zer egin? A bitamina hartu eta ordenagailuekin eta kontuz ibili. Lanerako musika lasaia bolumen bajaran gustatzen zait. Aries zeinukoa naiz; instintiboak gara”*

- Ez.
- **Betaurrekorik garestienak, zeintzuk?**
- Bitxiak dituzten betaurrekoak, milioia inguru...
- **Lanerako musika ala irratia?**
- Musika lasaia bolumen bajaran.
- **Erlojurik erabiltzen duzu?**
- Bai.
- **Puntuala zara?**
- Ahal badut bai.
- **Zodiakoko zein zeinukoa zara?**
- Aries. Instintiboak gara.
- **Zure kalidade bat?**
- Pertseberantzia.
- **Eta defektu bat?**
- Despistatua naizela.
- **Emakume batengan zer da gehien apreziatzen duzuna?**
- Afektibitatea.
- **Animalia bat?**
- Zaldia.
- **Kolore bat?**
- Gorria.
- **Hobby bat?**
- Naturarekin zerikusia duten kirolak.
- **Irakurritako azken liburua?**
- “La casa de los espíritus”, Isabel Allenderena.
- **Beldurra, zeri?**
- Gaisotasun larriren bati.
- **Bidaia bat, nora?**
- Vietnam edo Filipinetara.
- **Ilargira bidaia egingo zenuke?**
- Bai.
- **Internetara konektaturik zaude?**
- Asmoa daukagu konektatzeko.



## DEBA GARAÍK@ JATETXE GIDA

- Bailarako 100 jatetxe.
- Sukaldeko 100 errezeita.
- Terminologiaren hiztegia.

Laster zure etxetik pasatuko gara eskaintzera!

**debagune**  
Deba Garaiko Euskara Elkartearen Argitaletxea

**ETXEBIZITZA**

**Etxea** salgai Osintxun.  
☎ 76 36 61 (arratsalde).

**Lokala** salgai edo alokairuan Masterrekan. 150 m<sup>2</sup>.  
☎ 76 11 89.

**Pisu** amueblatua salgai.  
☎ 76 49 30 (gauetz).

**Pisua** salgai Frontoian. 160 m<sup>2</sup>.  
☎ 76 24 42.

**Pisu** eguzkitsua salgai Matxiategin.  
☎ 76 40 99.

**Pisua** alokairuan Bilbon, Deustuan.  
☎ 76 13 14.

**Garajea** alokairuan Ibargarain.  
☎ 76 33 76.

**Pisua** salgai Aranerrekan.  
☎ 76 42 65 (gauetz).

**Lokal komertzialak** alokairuan Zurraderon eta San Pedron.  
☎ 76 57 69.

**Logela** bat alokairuan (sukalderako eskubidearekin).  
☎ 76 13 46 (Dorleta).

**Lokala** alokairuan Telesforo Aranzadin.  
☎ 76 30 08.

**Etxea** salgai Zubiaurren.  
☎ 76 64 88 (gauetz).

**Pisua** salgai Antzuolan.  
☎ 76 64 65 (12:00-13:30).

**Pisua** salgai Dr. Fleming kalean.  
☎ 76 56 99.

**Garaje** bikoitza alokairuan Zurraderon.  
☎ 76 57 69.

**Garajea** salgai San Lorentzon.  
☎ 76 45 60/51 45.

**DENETARIK**

2. eskuko **motoaitzurra** erosiko nuke.  
☎ 76 58 12.

**Hozkailu** berria salgai. Egoera onean.  
☎ 76 70 86.

**Ileapaindegia** alokatzen da Bergaran. Prezio interresgarria.  
☎ 76 56 85.

**Botoidun akordeoia** behar dut. 120 bajurekin.  
☎ 76 07 79.

**Renault 5 GT** Turbo kotxea salgai.  
☎ 76 57 87.

**Butanozko** berogailua eta egurrezko kalefazio galdara salgai.  
☎ 74 41 28.

**Nikon FM2** kamara berria salgai. Rowi boltsa haundiarekin.  
☎ 76 50 86.

**Suzuki** GSX 600 F motorra egoera onean salgai.  
☎ 76 25 61.

**Renault 4** kotxea salgai. Merkea.  
☎ 79 23 69.

**Idazmakina** elektronikoa salgai.  
☎ 76 39 14.

**Eskalada** egiteko katuoinak saltzen ditut.  
☎ 76 50 22 (asteburuan) edo (948) 27 11 82 (Noelia).

**"Moncayo"** karabana salgai.  
☎ 76 38 26.

**LANA**

**Haurrak** zaindu eta etxeko lanetarako neska behar da.  
☎ 76 24 33.

**Gaztetxoei** marrazketa librean laguntzeko prest nago.  
☎ 76 34 83.

**Kitarra** klaseak hartuko nituzke.  
☎ 76 46 48.

**Andre** batek zaharrak zaindu edo etxeko garbiketarako egiten ditu.  
☎ 76 00 90.

**Itzulpenak** (ingeleza, gaztelera, euskara) egiteko pertsona behar da.  
☎ 79 25 75.

**Haurrak** edo zaharrak zaintzen ditut.  
☎ 79 72 92.

**Etxeko** garbiketarako egongo nituzke.  
☎ 76 13 46 (Dorleta).

**Errepartoak** egiten ditut furgonetan.  
☎ 20 39 63.

**Mate**, fisika eta kimika klaseak.  
☎ 76 24 31.

**Etxeko** lanetarako neska behar da.  
☎ 76 32 06.

**Pintura** eta marrazki klaseak (Arte Ederretan lizentziatua).  
☎ 76 03 83.

**Lizentziatu** batek mate, fisika eta kimika klaseak ematen ditu.  
☎ 76 70 40.

**Neska** eskeintzen da astebukaeretan helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko.  
☎ 76 56 66.

**Majisteritza** ikasle batek OHoko klaseak ematen ditu.  
☎ 76 47 30.

**Etxeko** lanak egongo nituzke.  
☎ 76 42 63.

**Mate**, fisika eta informatika klaseak.  
☎ 76 46 03.


**Ingeles** klaseak ematen dira.  
☎ 76 40 89 (Gemma).

**ARREGUI, E.M.****AROSZTEGIA**

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
  - ATEAK, etab.
- TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20 ☎ 76 11 73  
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

TABERNA-ERRETEGIA

**EGUZKITZA**

MENU BEREZIA:

**Lehen platera**  
Entsalada mistoa  
Tuterako kukuluak  
Baba gorriak  
Potxak almejekin  
Esparragoak  
Patea  
Alkatxofa salteatuak  
Berdura-menestra  
Onddo-nahaskia  
Hestebeteak aukeran

eta abar

**Bigarren platera**  
Xerra patatekin  
Eskalopea  
Txuleta  
Saiheskia  
Baserriko oilaskoa  
Mingaina saltsan  
Buztana saltsan  
Basurdea  
Oilarra  
Zapoa  
Legatza albardatuta

eta abar

**Berriz zabaldu dugu!**  
**Zatoz gure menu berezia probatzera!**


**Postrea**  
Aukeran

**Menuaren prezioa**  
1.450 PTA

Oharra: prezio honen barruan ez dago sartuta ez edaririk ezta BEZa (%7) ere.

Aranerreka 30  
Tf. 76 56 03

# BONOFOTOA



## Ana Oianguren

**Ana Oianguren**ek jaso du oraingo honetan BONOFOTOko saria, aurrekoan egindako galdera berak asmatu duelako, eta ondorengo zozketan bere txartela atera delako. Argazkian agertzen ziren leihoak non dauden galdetzen genizuen eta erantzun zuzena **Arrese Kantoia** zen. Beraz, aste honetako 10.000 pezetak **Ana Oianguren**eni eman dizkiogu. Zorionak!!

***Gaur egun itxita dagoen zein tabernatako kanpoaldeko horman dago iskripzio hau?***

Izena: \_\_\_\_\_ Abizena: \_\_\_\_\_ Tfnoa: \_\_\_\_\_

Saria  
10.000 PTA

Moztu paper hau eta  
ekarri astebete baino lehen

**BERRIGARA**  
Errotalde Jauregia Bergara

## Lehen maila

| TALDEAK                  | P  | J | G.A. | G.K. |
|--------------------------|----|---|------|------|
| 1. MONGATXURRAK          | 13 | 6 | 21   | 10   |
| 2. BAR CANALEJAS         | 12 | 5 | 22   | 16   |
| 3. A ZE FLAXA ETXAGI     | 11 | 6 | 20   | 13   |
| 4. AZPEITXI JATETXEA     | 11 | 6 | 24   | 19   |
| 5. PAGOMENDI             | 9  | 6 | 23   | 14   |
| 6. ERROTAGAIN            | 7  | 4 | 12   | 9    |
| 7. ETXAGI                | 6  | 6 | 17   | 19   |
| 8. AGINASPI              | 6  | 6 | 18   | 32   |
| 9. JAUJA OH ZEREZOS      | 6* | 5 | 19   | 17   |
| 10. ARLOTEAK/OILAGORRA   | 4  | 5 | 5    | 11   |
| 11. BILDURBAREK OPEL/LAM | 3  | 5 | 13   | 20   |
| 12. ORTZI                | 1  | 6 | 7    | 21   |

## A multzoa

| TALDEAK                   | P   | J | G.A. | G.K. |
|---------------------------|-----|---|------|------|
| 1. EZINLEIKE              | 15  | 6 | 55   | 17   |
| 2. AGIRREBEÑA JATETXEA    | 15  | 6 | 26   | 13   |
| 3. SHAKTALE               | 12  | 6 | 31   | 6    |
| 4. MRW                    | 12  | 6 | 25   | 17   |
| 5. ALDOKA MALDOKA         | 11  | 6 | 16   | 12   |
| 6. MANITOU                | 10* | 6 | 30   | 4    |
| 7. MOSKIS                 | 10  | 6 | 25   | 17   |
| 8. GANBARA ARI ARI        | 6*  | 6 | 15   | 17   |
| 9. INDARGORRI             | 4   | 6 | 13   | 23   |
| 10. POLIDEPORTIVO TABERNA | 3   | 6 | 13   | 38   |
| 11. KAIXO                 | 0   | 6 | 7    | 61   |
| 12. IGANDEKOAK            | -3* | 6 | 6    | 37   |

## B multzoa


| TALDEAK          | P   | J | G.A. | G.K. |
|------------------|-----|---|------|------|
| 1. SLO           | 15  | 6 | 21   | 14   |
| 2. ARTUSAMAK     | 12  | 5 | 33   | 15   |
| 3. AMOZKIBAR     | 12  | 5 | 18   | 14   |
| 4. AUTOBEREZI    | 10  | 6 | 28   | 24   |
| 5. JAKINA PT     | 9   | 6 | 28   | 19   |
| 6. BAYER         | 9   | 5 | 15   | 18   |
| 7. UVE BIKOITZA  | 6   | 6 | 14   | 21   |
| 8. KUSOAK        | 6   | 5 | 20   | 25   |
| 9. TXIPIRON      | 4   | 6 | 10   | 23   |
| 10. ERDIBITERRAK | 4   | 5 | 13   | 18   |
| 11. AMILOTX      | -2* | 5 | 5    | 14   |

## C multzoa

| TALDEAK             | P  | J | G.A. | G.K. |
|---------------------|----|---|------|------|
| 1. LA JUVE          | 15 | 6 | 22   | 7    |
| 2. GUADALEST        | 15 | 6 | 22   | 17   |
| 3. FAC              | 12 | 5 | 29   | 10   |
| 4. UFALA            | 12 | 5 | 19   | 11   |
| 5. ERI SIRIMIRI     | 10 | 6 | 18   | 17   |
| 6. BAR GANBARA      | 6  | 5 | 24   | 16   |
| 7. MATXAKATEGI      | 6  | 5 | 12   | 20   |
| 8. ETENGABE         | 4  | 5 | 5    | 13   |
| 9. KOMANDO PIPERRAK | 3  | 5 | 12   | 21   |
| 10. LA PEÑA DML     | 0* | 6 | 13   | 25   |
| 11. PATATUS         | 0* | 6 | 14   | 33   |

\* KARNETAK EZ ENTRAGATZEARREN PUNTUAK KENDU ZAIZKIO.

# Jokoz kanpo



## Xabier Kintana

**BAYER**

### ZER MODUZ TXAPELKETAN?

Nahiko ondo, hiru partidu irabazi eta bi galdu egin ditugu.

### LEHENENGO URTEA IZATEKO ESPERO ZENUTEN HORRELA ARITZEA?

Ondo jokatzeara eta ondo pasatzea inporta zait bakarrik.

### BESTE TALDEAK ZELA PORTATZEN DIRA?

Ondo, ez dugu arazorik eduki. Arbitratzen dugunean ez da joko zikin askorik ikusten.

### ARBITRATZEA GUSTATZEN ZAIZU?

Bai, tokatzen zaizkigun partidu guztiak nik arbitratzen ditut.

### JOKOA ASKO MOZTEN DUZU ALA JOKATZEN LAGATZEN DUZU?

Jokatzen lagatzea gustatzen zait.

### ZE POSTUTAN GERATZEA ESPERO DUZU?

Lau lehenengoen artean sailkatzea espero dut.

### ZERGATIK BAYER IZENA?

Talde alemaniarrenegatik edo pastilengatik, ez dakit; nire taldekideek jarri zioten izena.

### GOLIK SARTU DUZU?

Ez, atzealdean jokatzen dut eta.

### TXAPELKETAKO JOKALARIRIK ONENA?

Igor Alberdi, Manitou taldekoa.

### LIGAKO JOKALARIRIK ONENA?

Aranzabal.

### ETA TALDEA?

Reala.

### MUNDIALA ZEINEK IRABAZIKO DU?

Brasiliek.

## EMAITZAK

|  |      |
|--|------|
| ARLOTEAK/OILAGORRA-A ZE FLAXA ETXAGI   | 0-3  |
| MONGATXURRAK-PAGOMENDI                 | 3-1  |
| JAUJA OH ZEREZOS-ETXAGI                | 6-9  |
| BAR CANALEJAS-ERROTAGAIN               | 3-5  |
| ORTZI-AGINASPI                         | 3-7  |
| BILDURBAREK OPEL/LAM-AZPEITXI JATETXEA | 6-6  |
| IGANDEKOAK-MANITOU                     | 0-10 |
| KAIXO-SHAKTALE                         | 0-15 |
| INDARGORRI-MOSKIS                      | 3-4  |
| POLIDEPORTIVO TABERNA-ALDOKA MALDOKA   | 4-5  |
| AGIRREBEÑA JATETXEA-MRW                | 7-2  |
| GANBARA ARI ARI-EZINLEIKE              | 3-4  |
| UVE BIKOITZA-BAYER                     | 1-5  |
| TXIPIRON-AMOZKIBAR                     | 0-3  |
| KUSOAK-JAKINA PT                       | 4-10 |
| ARTUSAMAK-AUTOBEREZI                   | 10-3 |
| ERDIBITERRAK-SLO                       | 2-5  |
| LA PEÑA DML-FAC                        | 2-8  |
| PATATUS-MATXAKATEGI                    | 2-1  |
| KOMANDO PIPERRAK-GUADALEST             | 4-5  |
| UFALA-LA JUVE                          | 1-5  |
| BAR GANBARA-ERI                        | 1-3  |

## PARTIDUAK

### Zapatuan barruan

|  |
|--|
| 16:00: ALDOKA MALDOKA-AGIRREBEÑA JATETXEA • KAIXO  |
| 17:00: IGANDEKOAK-KAIXO • SHAKTALE                 |
| 18:00: SHAKTALE-INDARGORRI • POLIDEPORTIVO TABERNA |
| 19:00: MOSKIS-POLIDEPORTIVO TABERNA • AGINASPI     |
| 20:00: AGINASPI-BILDURBAREK OPEL/LAM • MOSKIS      |

### Zapatuan kanpoan

|   |
|---|
| 16:00: ETENGABE-LA PEÑA DML • FAC             |
| 17:00: FAC-PATATUS • KOMANDO PIPERRAK         |
| 18:00: MATXAKATEGI-KOMANDO PIPERRAK • PATATUS |

### Domekan barruan

|   |
|---|
| 09:00: BAYER-TXIPIRON • MRW                           |
| 10:00: MRW-GANBARA ARI ARI • A ZE FLAXA ETXAGI        |
| 11:00: A ZE FLAXA-AZPEITXI JATETXEA • ARI ARI GANBARA |
| 16:00: PAGOMENDI-JAUJA OH ZEREZOS • BAR CANALEJAS     |
| 17:00: ETXAGI-BAR CANALEJAS • AMOZKIBAR               |
| 18:00: AMOZKIBAR-KUSOAK • EZINLEIKE                   |
| 19:00: MANITOU-EZINLEIKE • LA JUVE                    |
| 20:00: LA JUVE-BAR GANBARA • MANITOU                  |

### Domekan kanpoan

|   |
|---|
| 16:00: JAKINA PT-ARTUSAMAK • AUTOBEREZI |
| 17:00: AUTOBEREZI-ERDIBITARRAK • UFALA  |
| 18:00: GUADALEST-UFALA • ERDIBITERRAK   |

## OHARRA

ANTOLAKETA BATZORDEAK ERABAKI DU ERROTAGAIN-ARLOTEAK PARTIDUA ERROTAGAINEN ALDE 3-0 LAGATZEA.

## TXINPARTAK

**Behobia-Donostia: Ordubetetik behera egin nahi du Antonio Merinok**

Antonio Merino korrikalari antzuolarra Behobiako irteeran izango da, izan duen lesioa gainditu ondoren. Merinok adierazi digunez, helburua ordu batetik jeistea izango da. Izan ere, nerbio ziatikoan izandako lesio bategatik denboraldiaren zati handi bat galdu egin du eta Behobia-Donostian marka ona egiteko esperantzarekin irtengo da. Antzuolarrak bi aldiz korritu du proba eta markarik onena ordu bat eta bi minutukoa da. "Aurten oso korrikalari onak datoz: Diego Garcia, Juzdado, Ziani eta horien mailan izatea zaila den arren, denbora ona egiteko esperantza daukat" adierazi digu Merinok.

# Final zortzirenetan Kluben arteko pilota txapelketa

**BKEko** pilota sailak Gipuzkoako Kluben arteko ligaren lehenengo fasea bukatu du eta hurrengo fasea jokatzeko maila ezberdinetako pilotari asko sailkatu dira. Hurrengo azaroaren 16tik aurrera final zortzirenak hasiko dituzte eta mailaz maila jokatu duten pilotarien erreposoa egin dugu.

Kadete mailan Aranburu eta Leturiak lortu dute txartela euren adinako Gipuzkoako pilotari onenen aurka jokatu ondoren. "Txapelketa baina baino lehen zalantzak izan genituen kadeteak lehenengo edo 2. mailan apuntatuko ote genituen eta lehenengo mailan onenen aurka jokatu arren bikain aritu dira Aranburu eta Leturia" adierazi digu Reyes Azkoitia BKEko entrenatzaileak. Jubenil mailan gauzak ez dira oso ondo joan eta Redondo eta Muguruzak garesti ordaindu dute kategoriako lehenengo urtean ez baitute partidurik irabazi.



Herriko pilotariek maila ona erakutsi dute orain arteko partiduetan.

Junior mailan, berriz, gauzak ezin hobeto joan dira eta Gorka Martinek jokaturako 8 partiduetatik bakararra galdu du eta lehen postuan sailkatu da. "Gipuzkoako onenen kontra jokatu du eta maila oso ona erakutsi du. Horrela jarraitzen badu liga irabazteko aukera asko ditu. Gainera potentzia aldetik asko irabazi du" esan digu Reyesek. Junior mailan binaka Aranzeta eta Gutierrezek ez dute partidurik galdu eta irabazteko favorito nagusiak dira.

Azkenik, senior mailan Muruamendiarazek eta Idiakezek ere partidu bakararra galdu dute sailkatzea. Azpimarragarria da Eduardo Samaniegok egindako lana, partidu askotan Muruamendiarazen ordezkoa izan baita.

Emaitza onak lortu arren Udal Pilotalekuan ezin jokatzeko arazo ugari sortu dizkie BKEkoek. "Partidu asko Antzuolan edo Elgetan jokatu behar izan ditugu eta hori tamalgarria da" esan digu Reyesek.



## 50 bat lagun Behobia txikian

Bergarako korrikalariak bigarren urtez jarraian ez zuten hutsik egin joan zen zapatuko Behobia txikian. Goizeko 10:30etarako formal formal 50 korrikalari inguru bildu ziren Agorrosingo igerilekuetatik Sorluzeraino dauden 15 kilometroak korritzeko. Joan zen urtean bezala, Carlos Telleriak erakutsi zuen herriko korrikalari popularren artean, popularrena dela eta lasterketaren ondoren igerilekuetako tabernan egindako bazkarian opari bat jaso zuen. Datorren domekan jokaturako den Behobia-Donostian sasoiaren daudela erakutsi beharko dute herriko korrikalariak.



**KARTELDEGIA**

**FUTBOLA**

◆ **Bergara-Urki**

Lehen erregionala.  
Zapatua. 15:45  
Agorrosin futbol zelaia.

◆ **Bergara-Arrasate**

Emakumezkoak.  
Domeka. 11:30.  
Ipintza futbol zelaia.

◆ **Bergara-Ordizia**

Lehen mailako kadeteak.  
Zapatua. 16:30.  
Ipintza futbol zelaia.

**ESKUBALOIA**

◆ **Bergara-Zarautz**

Senior mutilak.  
Zapatua. 11:00.  
Labegarieta kiroldegia.

◆ **Bergara-Zarautz**

Kadete mutilak.  
Zapatua. 09:45.  
Labegarieta kiroldegia.

◆ **Bergara-Hondarribia**

Jubenil mutilak.  
Domeka. 12:15.  
Labegarieta kiroldegia.

**SASKIBALOIA**

◆ **Bolsos Bergara-San Benito**

Kadete mutilak.  
Zapatua. 12:15.  
Mariaren Lagundia.

◆ **Bolsos Bergara-S.T. Lizeoa**

Junior mutilak.  
Zapatua. 16:00.  
Mariaren Lagundia.

◆ **Ganbara BKE-Almen**

Junior neskek.  
Zapatua. 17:15.  
Mariaren Lagundia.

**PILOTA**

◆ **Nagore-Errandonea**

Lau eta erdiko txapelketa.

◆ **Alustiza eta Galarza III-**

**Ariznabarreta eta Zezeaga**  
Eguakitza. 22:00.  
Udal Pilotalekua.

# Iñigo Ziarsolo

## Saskibaloiko joku antolatzailea

**BKEko saskibaloit talde nagusiak denboraldi hasiera bikaina izan du, orain arte jokatu dituen 5 partiduetatik bakarria galdu baitu. Sailkapenean bigarren postuan kokatuta dago eta ez da lan makala kategorian berrian lehenengo urtea izateko.**

**- Pozik egongo zarete lortutako emaitzekin, ezta?**

- Bai, nahiko ondo hasi gara. Helburua mailari eustea da; 5 partidutatik 4 irabazi ditugu eta horietako bat Durangoko Tabirakoren aurka, puntu bakar bategatik. Tabirakon ACBn jokatutako Astarloa izan genuen aurrean.

**- Espero zenuten hain ondo ibiltzea?**

- Ez, hasi aurretik aurkako taldeak ez genituen ezagutzen eta ez genuen espero hain ondo ibiltzea. Halere, ikusi da maila ona ematen ari gara eta aurrean bukatu dezakegula.

**- Egin dituzuen fitxaketak garrantzitsuak izan dira?**

- Bai, Urisabel bergararra ekarri dugu eta barruko jokoan konfidantza eta indarra ematen digu. Oskar Agirre hegalekoa urte askoan geldik izan ondoren ondo hasi da. Bestalde, gainontzeko jokalariek 4 urte daramatzagu elkarrekin jokatzen eta hori ere oso garrantzitsua da.

**- Zela dago antolatuta zuen kategorian?**

- 10 taldeko bi multzotan banatuta gaude eta

multzo bakoitzeko 5 lehenengoek igoera fasea jokatuko dute eta bost azkenengoek jeitsierakoa. Onenen multzoko 4 talde onenek bigarren mailara igoko dute. Lehen fase honetan bost lehenengoen artean sailkatzea da gure helburua.

**- Jokalari batzuk lesionatuta egon arren taldeak ez du asko igarri.**

- Mikel Garitanok eskafoidea apurtu du eta Romerak ere arazoak izan ditu beste batzuek bezalaxe. Halere, 9 jokalariko taldea mantendu dugu eta hori garrantzitsua da. Gainera, entrenamenduetara jende gehiago etortzen da.

**- Zela moldatzen zarete hobeto, erasoan ala defentsan?**

- Defentsa gogorra egiten dugu eta horixe da gure jokoaren oinarria. Gero, erasora azkar iretzen saiatzen gara. Beraz, defentsa gogorra eta eraso bizkorra dira gure jokoaren ardatz nagusiak. Hori ondo egiten dugunean ez dugu arazorik izaten, bestela jaurtiketetan asmatzen saiatzen gara.

**- Zein da gehien gustatzen zaizun saskibaloit jokalaria?**

- Lehen Julius Erving eta gaur egunekoetik Jordan.



Ziarsolok eta bere taldekideek denboraldi hasiera bikaina izan dute.

**“Erasora azkar irteteko defentsan gogor aritzen gara”**



Argazkia: Imanol Iriagarai

## Bikote dinamikoa Institutuan

**E**ntzunda geneukan Duo Dinamico bikotea berriz ere plazarik-plaza zebilela. Euren abestiak 60ko hamarkadako gazteen zoramena ziren eta gaur egun, 2000. urtearen atarian, berriz ere lortu dute arrakasta. Bergaran ere izan zuten jarraitzaileak, ez orain dela 30 urte bakarrik, baita 80ko hamarkadan ere. Horren lekuko aste honetako argazki zaharra. Ipintza institutuko Santo Tomas egunean aterata dago argazkia, 1982. urte inguruan, eta bikote dinamikoa agertzen zaigu gogoz inguratuta. Hauek dira euren izenak, ezkerretik hasita:

**Zutik:** Pili Sampietro, Lierni Irizar, Ane Madariaga, Maria Eugenia Iturbe, Izaskun Agirrezabal eta Anaje Aranzabal

**Eserita:** Xabier Mujika eta Gabriel Etxaniz.

Industria  
hornikuntzak



Industriaren  
alde

### MEMESA S.L.

Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE. ☎ 79 42 22 • Faxa: 79 47 89  
Santa Kruz, 25 ARETXABALETA. ☎ 77 11 75 • Faxa: 77 13 08



## zumelaga

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZIN

San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21



## ETXEBERRIA

### ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65

## Bolintxo

OKINDEGIA

domeketan ere zabalik

Zurradero, 2 beheha Telefonoa 76.01.26



MODELO BERRIAK  
Kalitate hobea preziorik onenean!!



OBRAREN PROIEKTUA ERAMATEN DUGU



Ibargarai, 11-13 BERGARA  
Telefonoa eta faxa: 76 70 58



SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK



# GUIPUZCOANA

*Paketeen garraio eta banaketa*



PAKETERIA ZERBITZU  
EGUNEROKOA

- *Elkarte europarrera*
- +
- *Suizara,*
- *Noruegara,*
- *Poloniarra eta*
- *Hungariara*

**BERGARA**

**Tf.: 76 36 42**

Faxa: 76 54 25

San Juan auzoa z/g

20570 Bergara